

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

## Txoratutakoa

Geu bakarrik ez, beste batzuk ere txoratzen dira. Argazkikoa, sagarrondoia (*Malus x domestica*). Aurtengo hau ez da sagar urtea, baina gure etxe inguruko eguteretako sagastietan sagarra poliki dator. Beste-tzekoen sagastiko sagarrondo hau majo betea dago. Alez mukuru eta beheko barreneko adarrean lorea. Lore txoraa esaten diogu. Aranondo, gerezio, udareondo eta abarretan ere ez da ikusten zaila. Txakurrekin gertatzen ohi den eran, landareek ere nagiaren itxura hartzen ote dute?

## Haizearen airea

FRUITUAK JATEN DITUGUN animaliok barrunbeetan garraiatzen ditugu haziak. Azalari itsatsita edo ileetatik zintzilik ere makina bat hazi ibiltzen da hara-hona. Belardi edo mendi aldean ibili ondoren galtza-barren, galtzerdi eta oinetakoei erreparaiezaiezu eta behin-behineko apopilo ugari topatuko duzu, zeuk nora eramango... Ezaguna da lapa-belarraren adibidea (*Arctium sp.*), jateko txar amorratua bada ere fruituak edozein ile edo ehunari heltzeko kako apartak ditu eta bidaia luzeak egin ditzake edozein animalia larrutan. Kako hori hain da eraginkorra, gaur egun nonahi topa dezakegun belkroa sortzeko inspirazio izan dela.

Haziak sakabanatu eta bere kasta zabaltzeko, landareek ez dituzte animaliak bide bakar. Autopista erabilienak zazpi haizeenak dira. Haizeak altxa eta ahal bezain urrun eraman ditzan haziak aparteko hegala, kardilaunak edo biloak dituzte. Sorgin-belarrari (*Taraxacum officinale*) jolasean fua eginez zabaltzen dizkiogun hazien, edo makalak (*Populus nigra*), lertxunak (*Populus tremula*) eta zurzuriak (*Populus alba*) "elurtean" barreiatzen dituzten hazi hegalariei diseinua berdinduko duen paraxutik ez da egundo asmatu. Beste landare batzuk hegala erantsi dizkiote haziari. *Acer* generoko astigar eta eihar jendea aparta izan da hegala horien asmakuntzan eta hobekuntzan: hazi bakoitzari mintzeko hegala luze bana ematen diote, baina hegaldia luzatzeko binaka lotzen ditu, bik adina, bikaina!

Txilarrek ere haizea erabiltzen dute, ez ordea hazi paraxut edo hegalez jantziz, haize-kolpean hazien gordelekua katapulta bezala erabiliz baizik.

*Salsola kali* (mahats-txikia) edota *Eryngium campestre* (armika edo buruiska), hazi helduta haize bolada zakarren baten zain izaten dira, lepoa moztu eta haizearen airea aire-aire dantzatuz landare osoa piritilaka eraman dezan, haziak barreiatuz.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: Endanea Garden Center

**5.000 m<sup>2</sup>ko**

Barategiak loraz, zuhaitzak, zuhaitzak eta osagarriak beteta.

Zatoz udazkeneko koloreak ikustera

Abitasrik ez dago: 8:00etatik 20:00etara  
Igandak, ospetatuak eta jaiek: 8:00etatik 14:00etara

Alameda Auzoa 40, 14-1 (Nongo Hospitala Bidearen zuzenean)

20200 Honderrieta • Tfnoa: 943 641 710

[www.endanea.com](http://www.endanea.com)